2022-3-30

*PRENTSA-TXOSTENA*

# EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIAREN 29. EDIZIOAREN AURKEZPENA

Gaur aurkeztu dugu prentsaurrean 2022ko ekainaren 5ean Bastidan ospatuko dugun Euskal Eskola Publikoaren 29. Jaia. Prentsaurrekoan parte hartu dute Mabi Zubiria, Bastidako eskolako ordezkariak, Maite Fernández, Denon Eskola federazioko zuzendaritza-batzordeko kideak eta Lurdes Imazek, EHIGEko koordinatzaileak. Bertan egon dira ere Arabako Errioxako ikastetxe publikoetako ordezkariak, familiak zein zuzendaritza-taldeak.

## HIRUGARRENEAN ASMATU!

2019ko azaroan prentsaurrea egin genuen Bastidako eskolan gaur batzen gaituen helburu berberarekin. Orduan ez genuen imajinatzen zenbat aldatuko zen gure bizitza hilabete gutxi batzuetan.

Argi geneukan Arabako Errioxak merezi zuela Euskal Eskola Publikoaren festa handi bat, eta hirugarrenean asmatu dugu: 2022ko ekainaren 5ean ospatuko dugu Bastidan Euskal Eskola Publikoaren 29. Jaia.

Ohikoa den bezala, festa eta aldarrikapena batuko ditugu Bastidan ekainaren 5ean. Ikastetxe publikoen eguneroko lana balioan ipintzeaz gain, beharrezkoak ditugun baliabideak exijituko dizkiogu Administrazioari, ikasle guztiei kalitatezko hezkuntza eman ahal izateko.

## LELOA ETA IRUDIA

**“Hazitik gora”** da Euskal Eskola Publikoaren 29. Jaiaren leloa. Beronen bidez Arabako Errioxako ikastetxe publikoak balorean ipini nahi ditugu, bizitzen ari diren transformazio prozesuak aitortuz eta gizarteratuz. Hiriburutik urrun egon arren eta

Errioxako mugan, gainontzeko ikastetxe publikoak bezala elementu ezinbestekoak dira herritar guztiei kalitatezko irakaskuntza euskalduna eskaintzeko. Euren tamaina txikia ere abantaila bat da ikasle bakoitzaren beharretara hobeto egokitzeko. Horretaz gain, sarean egiten dute lan, praktika onak konpartituz elkarrengandik ikasten.

Imajinari dagokionez, ernamuintzen ari den hazi irudikatzen du kolore desberdinekin, Arabako Errioxako eskola publikoak bizi duen eraldaketa prozesua islatuz. Humanos Unidos-eko Miguel Angel Herrera da autorea, eskola publikoko aita hain zuzen ere.

## ARABAR ERRIOXAKO IKASTETXE PUBLIKOAK

Sei ikastetxe publiko daude Arabako Errioxan: Bastidako herri ikastetxeaz gain, Eltziegoko eskola publikoa, Lantziego ikastola, Ramiro de Maeztu eskola (Oion), Victor Tapia eskola (Biasteri), Samaniego institutua (Biasteri). Guztira, 1.170 ikasle eskolaratzen dituzten ikasturte honetan.

Ikastetxe guztietako guraso eta irakasleen ordezkariak parte hartzen ari dira Euskal Eskola Publikoaren Jaiaren antolaketan, izan ere gure helburuetako bat eskualdeko ikastetxe publikoen arteko harremana sendotzea baita, orain eta aurrerantzean elkarrekin lan egin ahal izateko.

## ESPAZIOAK ETA PROGRAMA

Bastidako espazio hauek hartuko dute Euskal Eskola Publikoaren Jaia:

- Eskola: hasierako-ekitaldia egingo da bertan.
- Herriko plaza: jaiaren erdi-gunea izango da.
- Piszinak eta ikastola aurreko zelaigunea: haur eta gazteentzako guneak.
- Frontoia: bazkaria.
- Irakaslearen plaza, Jai plaza: kultur-ekitaldiak.
- Kaletik: kale animazioa

Aurtengo Jaiaren jarduerak ez dira mugatuko ekainaren 5era. Ekainaren 4rako programa prestatzen ari gara, asteburua Arabako Errioxara hurbildu nahi direnentzat.

Horretaz gain, jardunaldi pedagogiko bat egingo dugu maiatzean irakasle eta gurasoekin

**BABESLEAK**

Prentsaurrea amaitzeko, eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu Euskal Eskola Publikoaren Jaiaren babesle eta laguntzaile guztiei eta gaurkoan bereziki, prentsaurrea egiteko Arte Ederretako Museo hau eskaini digun Arabako Foru Aldundiari.

www.euskaleskolapublikoarenjaia.eus

Informazio gehiago: Lurdes Imaz 688 689 877

2022-3-30

*DOSSIER DE PRENSA*

# PRESENTACIÓN DE LA 29ª FIESTA DE LA ESCUELA PÚBLICA VASCA

Hoy hemos presentado en el Museo de Bellas Artes de Vitoria-Gasteiz la 29ª edición de la Fiesta de la Escuela Pública Vasca, que celebraremos en Labastida el 5 de junio de 2022. Han participado en la rueda de prensa Mabi Zubiria, en representación de la escuela pública de Labastida, Maite Férnandez, de la junta directiva de Denon Eskola, y Lurdes Imaz, coordinadora de la Confederación de EHIGE. Han acudido asimismo representantes de las familias y las direcciones de los seis centros educativos públicos de la Rioja Alavesa.

## ¡A LA TERCERA VA LA VENCIDA!

En noviembre de 2019 celebramos una rueda de prensa en la escuela pública de Labastida con el mismo objetivo de hoy. Por aquella época no sabíamos que nuestras vidas iban a dar un giro de 180 grados en pocos meses.

Siempre tuvimos claro que Rioja Alavesa merecía una Fiesta de la Escuela Pública por todo lo alto y a la tercera va la vencida: el 5 de junio celebramos en Labastida la 29ª edición de la Fiesta de la Escuela Pública Vasca.

Como es habitual, combinaremos el ambiente festivo con la reivindicación, poniendo en valor el trabajo diario que hacemos en nuestras escuelas e institutos con las correspondientes exigencias a la administración educativa para garantizar una educación de calidad a todo el alumnado.

## LEMA E IMAGEN

**"Hazitik gora"** es el lema de la 29ª edición de la Fiesta de la Escuela Pública Vasca. Con él queremos poner en valor a las escuelas públicas de la Rioja Alavesa y reconocer y difundir los procesos de transformación en los que están inmersos. Lejos de la capital y en la frontera con La Rioja, son tan imprescindibles como el resto de los centros educativos públicos para ofrecer una enseñanza de calidad euskaldún a toda

la sociedad. Su tamaño es también una ventaja para adecuarse a las necesidades de cada alumna y alumno. Además, trabajan en red, compartiendo buenas prácticas y conocimientos.

En lo que ese refiere a la imagen, ésta representa una semilla de colores que germina, reflejando así el proceso de transformación en el que está inmersa la escuela pública en la Rioja Alavesa. Ha sido creado por Migue Ángel Herrera de Humanos Unidos, padre a su vez de la escuela pública.

## CENTROS EDUCATIVOS PÚBLICOS DE LA RIOJA ALAVESA

La Rioja Alavesa cuenta con seis centros educativos públicos: además de la escuela de Labastida, la escuela pública de Elciego, Lantziego ikastola, la escuela Ramiro de Maeztu de Oion, la escuela Victor Tapia y el instituto Samaniego de Laguardia. Entre todos escolarizan este curso a 1.170 alumnas y alumnos.

Representantes de familias y profesorado de los seis centros están participando ya en la organización de la Fiesta de la Escuela Pública Vasca, ya que uno de nuestros objetivos es estrechar los lazos entre los centros de la zona.

## ESPACIOS Y PROGRAMA

Las actividades del día de la Fiesta se celebrarán en:

- Escuela: aquí se celebrará el acto oficial de inauguración.
- Herriko plaza: será el espacio central de la Jaia.
- Piscinas y explanada frente a la ikastola: zona infantil y juvenil.
- Frontón: comida popular.
- Plaza del Maestro, Plaza Jai: actividades culturales.
- Por las calles: animación de calle.

Las actividades de la Fiesta de la Escuela Pública Vasca no se limitarán al 5 de junio. Estamos preparando un programa de actividades para el día anterior, para las personas que decidan pasar el fin de semana en Rioja Alavesa.

Además, en mayo realizaremos una jornada formativa con familias y profesorado.

**PATROCINADORES**

Queremos acabar la rueda de prensa mostrando nuestro agradecimiento a todos los patrocinadores y colaboradores que hacen posible la Fiesta de la Escuela Pública Vasca, y muy especialmente a la Diputación Foral de Álava, que nos ha abierto hoy las puertas del Museo de Bellas Artes.

www.euskaleskolapublikoarenjaia.eus

Más información: Lurdes Imaz 688 689 877